

HITZAURREA

I. Mendeurrenean

—Bizimodu baten aitorpenean.

Aita Gabirelen bizimodua gogo eta kultur jardurekin dago beteta, nahiz eta gizonezkoak berak 50 urte bete ez (1895-1945); nolana ere den, berrogeita hamar urteetara ino heldu ez zen bizimodu hori karmeldarren fraide-jantziak estalia zuen.

Aita Gabirel Jauregi Uribarren, Aramaioko semea, aitzindaria izan zen euskara zientzi gaitan erabiltzen. Beraren merezimendua ez da nolana ere: izan ere, euskaraz irakasten eta, bereziki, *Karmen'go Argia* aldizkarian, eta geroago *Pisia* (1935) eta *Kimia* (1936) liburuetan argitaratzen jadesi zuen; hori ez ezik, berak euskara erraz eta garbia erabili zuen, garai hartan hizperriak erabiltzeko erabiltzen zen joeraren gaitetik. Hori guztia aintzat hartu behar den merezimendua dugu. Horiezaz gainera, izadi-iztiaren gaiterako liburua (193'?) atundurik zuen, baina ezin burutu izan zuen gudak galerazi ziolako.

Haren jaiotzaren urteurrena dugula eta, Historiak aita Gabirel ipini nahi izan du berak merezi duen lekuan, noraezko eta ezinbestez egin ohi duen moduan. Noraezko edo ezinbesteko lekua da, ze beraren merezimenduei esker euskararen erabilerari bide berriak zabaldu zaizkio; eta eskerrak eman nahi dizkiogu, ezik geroaldiak igerrri du haren ahaleginaren laguntasuna.

Araba eta, batez ere, Aramaiok bizi-indar eta berezotasuna izan ditu euskara eguneango bizimoduan erabiltzeko. Euskal idazleak izan ditu eta gaur egun baditu: literatura eta zientzien adarretarik zenbaitetan aitzindariak, barbarako, Pedro Barrutia eta Gabirel Jauregi.

Mendeurren hau dela eta, euskal kulturaren gizartearen senari baitatxekio, herri erakundeek beharrian atsegin eta harroa izan dute, Gabirel Jauregi bezalako gizonezkoak gogoratzeko. Honetara, bada, Aramaioko Udalak gogotsu hartu du bere seme-alaba argituenetariko baten mendeurrena ospatzeko; Arabako Aldundiak, bestalde, esku hartu nahi

Izan du, aita Gabireli eskerrak emateko antolatu dugun oroi-ekintza honetan; eta bere seme-alabak ezagutu eta gogora ditzagun nahi du, Historiari zor zaion oroimenaren ordaina egin dezagun.

—Gizartea, politika, kultura eta erlijioa asaldatu ziren garai hartan.

Aita Gabirel bizi izan zen berrogeita hamar urte hartan (1895-1905), gizarte, politika, kultura eta erlijioan garrantzi izagugarria izan zuten jazoerak ditugu. Gabireli suertatu zitzaizkion urteak dira.

Karmeldarra zen neurrian, ondokoa gogorarazi behar dugu: bera jaiotze baino 27 urte lehenago, Espainian, lekaide eta lekaimeen aurka egundoko jazarpena izan zen, alegia, lekaime-lekaideak komentuetatik atera zituzten indarrez garai lazgarri eta negargarri hartan; hala ere, Markinan, karmeldarrak berriz ezartzeari ekinak ziren (1868), eta ahalegin horren sustatzaileetarik hainbat aita Gabirelek ezagutu zituen. Euskal Herrian, ostera, kristauak miresgarri jazarri zitzaizkion egoera horri, eta bokazioak geroago eta gehiago ugaritu ziren, alderdi politikoen eta Gobernuaren indarretarik hainbat gora-behera. Adibide haietarik bat aitatzearren, hor dago aita Gabirelen familia. Aita Gabirel bizi izan zen artean, lekaime eta lekaideen aurkako ekinaldiak, eta Eliza katolikoaren aurkakoak Euskal Herrian, Iparraldean bezala Hegoaldean, gartsu-gartsuak izan ziren.

Aldi berean, Gobernuak gogor eta eratsu ekin zituen euskararen erabilerari; egin-eginean ere, Iparraldean, 1889-1906. urteen artean, Iparraldeko euskal herriak izugarri pairatu behar izan zuen joera hori, are gehiago euskal elizak eta lekaime-lekaideek, berauek ez baitzuten euskararentzat emanda zegoen "hiltzeko zigorra"ren menpean gelditu gura. Hori dela eta, hainbat apaizek zigor batzuk jasan behar izan zituzten. Bestalde, askoren gogoan dirau oraindik ere euskararen aurkako joerak, bai guda baino lehenago, bai guda ostean ere, bereziki, Hegoaldean.

Aurrekoa gora-behera, aita Gabirelek Hegoaldearen birsorrera politiko eta kulturala ezagutu zuen, batez ere, Sabin Aranaren bultzadari esker. Bitxia da eta gogoratu egingo dugu: Euzko Alderdi Jeltzalea eta Gabirel Jauregi urte berean jaiotzeak ziren: 1895. urtean. Urte horretan ere, Alfred Nobelek bere izeneko saria ezarri zuen aurrerengoz; Röntgenek X izpiak eriden zituen; Elizak misioen bultzada berria ezagutu zuen; etab.

Aita Gabirelek bizi egin zituen gizarte-kulturazko egoera horiek, bai eta politika eta erlijioaren alorretan jatorrikoak ere; eta gauza bera esan dezakegu zientziaren alorreko jazokun batzuk direla eta. Horiek guztiak izan eta, argi-ilunen artean, haren lana kristau karmeldar baten erantzuna izan zen, nori emanda eta beraren lurreko gogo eta kultur egoerari.

Aita Gabireli jazo zitzaizkion gertaera lazgarrien artetik, ondokoak aitatu behar dira: Munduko lehenengo guda, Espainiako guda zibila eta Munduko bigarren guda.

Guda zibilak haren buru eta kultur bizimodua hautsi zuen, beste askori jazo zitzaion legez; irakaskuntza utzi zuen, bai eta fisika, kimika eta izadi-iztiarekin zuen grina ere; guduk eragotzi zion *Kimia* (1936) liburu argitaratu berria zabaltzen, eta haren hirugarren liburu *Izadi-iztia* argitaratzen. Guda ondoko eskasia eta txirotasuna Larreko karmeldarren

komentuko administratzaile legez bizi izan zituen, haren ardura nagusia Larreko lekaidegai gazteak jazten eta beraiei jaten ematea zelarik. Eta Munduko bigarren guda amaitu eta lasterrera haren bizia amatatu zen.

Ikus daitekeenez, aita Gabirelen bizitzaren 50 urte horietako garaia oparoa izan zen gertaeretan; jazoera horiek, sarritan, izugarriak izan ziren, areago, Historiako ankerrenak izan direla esan liteke, hala nola, Munduko bi gudak eta guda zibil ugariak; beste batzuetan, zientziaren eta kulturaren aurreramenak itzala iragarri zuten; eta, zenbait Gobernu eta gizarteko hainbat talderen jazargo eta baztertzeko-ahaleginak gora-behera, kristautasun katolikoaren birsorrera antzeman liteke, gizakumearen zerbitzuean dagoela, batik bat behar gehien duenaren menpean, eta horren argigarri dugu misioek mundu osoan hartzen duten indarra.

2. Erabilitako gaiak

Aita Gabirel Jauregiri egin diogun omenaldi honetan, liburuko gaiak lau zatitan banatu ditugu: 1. *Bizitza eta garaia*: hiru idazlan. 2. *Idazlanak*: bost idazlan. 3. *Beraren herria, Aramaio*: hamaika idazlan. 4. Eraskin legez, Gabirel eta Angelo Jauregi anaiek *Karmen' go Argian* argitaratutako idazlanak argitaratuko ditugu, nor bere sarrera azterlanarekin.

Argitalpen honetan, aita Gabirelen bizitza eta lanaren ekarria ez ezik, aurreramen-dua ere bada Aramaio ezagutzeko, ze ikerlan berriak azalduko dira, batez ere, hizkuntzalaritzaren alorrekoak, Aramaioko euskara eta kulturaren inguruan.

3. Eskerrona

Liburu-omenaldi honetan, aita Gabireli zuzendua baita, hainbat lagunek hartu du esku. Bihoakie guztiei hemendik nire esker ona.

Lehenengo eta behin, euren idazlanekin esku hartu dutenei eman behar dizkiet esker-rrak. Aramaioko seme hauei: J. R. Elejalde, Antonio Unzueta, Florencio Unzueta, Patxi Salaberri, Pedro Puxana. Eta Euskal Herriko gainerako lankideei: Gotzon Garate, Luis Baraiazarra, J. R. Etxebarria, Jazinto Iturbe, Isaak Atutxa, J. Martínez Montoia, Txema Preciado Saez de Ocariz.

Aitamen berezia merezi dute, ostera, euren lanengatik ez ezik, liburu hau atondueran eman duten laguntzagatik, ondoko biok: **Patxi Uribarren**, Aramaioko seme eta aita Gabirelen iloba; eta **Anjel Lobera**.

Nire esker ona ere erakunde biri eman beharrean nago: Aramaioko Udalarari, bere seme argi eta ospetsu hau gogoratzeko egin dituen ahaleginengatik; eta Arabako Aldundiari, bai argitalpen honen gastuak ordaintzen esku hartu duelako, bai merezimendu argiak dituen arabar bat ezagutarazten ahaleginu delako.

Julen Urkiza